

## EMAKUMEA

### EMAKUMEA

Lora ederrak dagoz  
baratza zelaian  
usain gozoetan;  
emakumea dabil,  
erregiña bezela,  
zuri, lilietan.

Illezkorra dirudi  
zure edertasunak  
urrezko bitsetan;  
zegaz bardindu neike  
zure ezpanetan...?

Eguzkia otza da  
mendi tontor gaiñean  
agertzen danian...  
zure maitasun garrez  
bardindu nai ezker  
biotz odolean.

Lurreko ontasuna  
baño menago zara  
eztitanian:  
on oro batu zendun  
andra ta ama legez  
biotz barrenian.

Itxas ur dana baño  
zabal ta sakonago  
daukazu biotza;  
urdin zara ta garden  
errukizko garretan  
urturik bizitza.

Jakituria eder  
etxe arazoetan  
sendira begira;  
poza dario geroz  
sendiko giroari:  
argi ta dizdira.

### EUZKOTAR EMAKUMEA

Gaztetasun ernean  
zer ezagutu neban  
euskaldun etxean...!  
urre-gorriak ziran;  
zeruak, ala, naita  
lilien artean.

Larrosa artu nai dot,  
loretan ederrena,  
zugaz bardintzeko:  
baña uts, ezer ez da:  
goonetan, zu, zara  
bitxi bakarreko.

Euzko emakumea,  
zu, aurrelari ziñan  
askatasunian;  
Aberriaren deia,  
gogoz, entzun zenduan  
enderri maitean.

Zenbat lan eder, gogoz,  
orraztu zendun eskuz,  
gizonei begira;  
zenbat maitasun urtu.  
iñoiz, aspertu gabe  
lanaren arira.

Erriaren ardurak  
zure nortasunean,  
miñez, sartu ziran;  
zeruan izarrak letz.  
illuntasun orduan,  
argi izan ziñan.

Pozaren gar bizia,  
bakean eta gudan,  
ixuri zenduan;  
euskal sendi ederrak  
maitasunetan dagoz  
amaren onduan.

### BERTSO ETAN

Ordu onetan, dardaraz  
daukat  
nere pulstua aidean,  
ikusirikan gizon prestuak  
begi bi onen aurrean;  
beste aldetik, ez nagizue  
bildurrez sartu lurpean,  
jakituririk ez ba-dut ere  
aiskide gara lanean.

Gauzarik aski ikus ditugu  
gure bizitza-bidean,  
denak ez dira ain eder  
izan  
gure gogoaren eran;  
denporalia joan ondoren,  
geratzen gara lanean.  
oraindik ere esan gengike  
bizi gerala fedean.

Ikasi gendun jakituriaz  
gogora daigun bizian,  
Kristo Maisuak egin  
ebana.

bakarra zala lurrian;  
mitozko itzak esan ta  
esan  
etzan ibili aidian,  
nekeak, beti, alde  
danetik  
izan zituan bidian.

Jesus Jaunaren jakituria  
izan nai dana guztiak  
bizitz osoan bearko ditu  
artu beretzat nekiak;  
munduak legez ez dau  
argi tzen  
Kristoren argi zuziak,  
mitoak mito alde batera,  
lagundu beizku fediak.

Sarri, entzun dut aldi  
onetan  
esakun bildurgarria,  
moja ta praille ta abadeak  
galdu dabela erria;  
Jaunak esan zun, ez  
argitzeko  
gizonen uts egitea,  
ordu-sasoia eltzen  
danean,  
eingo dela justizia.

Ainbeste gauza entzun  
genduzen  
zuzentasun izenian,  
baña, nun, dira egite  
onak  
erriarentzat onian;  
bide ontatik gabiltzen  
danok  
zaindu gaitezen fedian,  
Nazaretetik argituko da  
zuzenbidea lurrian.

Ebanjelio argitasuna  
ezer ez ederragorik,  
umildadea norberarentzat  
gizon danak maitaturik;  
maitekor danak ez dau  
zapaltzen  
ez kentzen eskubiderik,  
zurea zutzat, nirea nitzat,  
elkartasunez jantzirik.

Paulin